

Menpetasunaren aurrean

aniztasunetik gogoeta eginez, konpromisorako eztabaidatuz

Menpetasunaren aurrean

Sarrera

1. 2005.eko azarotik 2006.eko apirilera doazen hilabeteetan, gizon eta emakumeen talde anitz eta heterogeneoa bildu gara mintegi batean (Zabal-Zabalik izeneko), gizarte aurreratuetan ikusten den menpetasunari buruz jarduteko. Lan mintegi hau Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzarako Sailak babestu du eta Bilboko Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Ikastegiak antolatu. Hainbat txosten eta ekarpenen bidez, agiri labur honetan jaso nahi dugun hausnarketa egin dugu. Agiri honen lehenengo jasotzaileak sinatzaileok gara, bakoitza bere erantzukizunean, jakin badakigulako esaten dugunak interpelatu eta konprometitu egiten gaituena.

2. Dena dela, lan honekin menpetasunaren gertakariari buruzko gizarte ikuspena eta eztabaida publikoa gehitu egin nahi dugu, apaltasunez bada ere. Gure inguruan eragin nahi dugu, pertsona, talde, entitate eta erakunde guztiak erronka garrantzitsu honen aurrean gero eta gehiago jabetu daitezen, azterketa sakona egin dezaten eta eraginkortasun operatiboz jardun. Menpetasunarekin lotutako era askotako ekimen zehatzak daudela dakigun arren, ez da gure asmoa horietako baten edo bestearen aipamen zehatzik egitea; aitzitik, gogoeta eta irizpide orokorrak aurkeztu nahi ditugu, irakurleak, nahi izan ezker, kasu partikular bakoitzari ezar diezazkion.

Menpetasunaren aurrean

Errealitatearen azterketa eta geroko aukerak

3. Menpetasunaz ari garenean, pertsona batek eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza edo sorospen garrantzitsua behar dueneko egoeraz dihardugu. Eguneroko bizitzako jarduera horiek oinarrizkoak dira (nork bere burua zaintzea, etxeko lanak,...) eta hezkuntza, lan edo, orokorrean, gizarte esparruetan parte hartzeko funtsezkoak diren beste jarduera instrumental batzuk. Menpetasuna prozesu dinamiko eta aldakorra da. Eragile fisiko, emozional, harremanezko, sozial, juridiko, ekonomikoen

eta beste eragile batzuen elkarrekintzak eragindako gertakari dimentsioanitza da. Horregatik, egundoko aniztasun eta heterogeneotasuna antzeman daiteke menpetasun egoera jasaten dutenen artean: beren adinari dagokionez, beren egoeraren arazoiei dagokienez, mugatuta dituzten gaitasunei dagokienez edo behar dituzten laguntzei dagokienez.

4. Menpetasunezko egoerek sufrimendua ekar diezaiekete bizi dituztenei, eta pertsona horiek zenbat eta bakarrago egon, orduan eta handiagoa izango da sufrimendu hori. Hala ere, orokorrean eta hasiera batean, menpetasuna ez da arazo bezala ulertu eta aurkeztu behar, batzuetan egiten den bezala. Gizakia autonomoa, bere bizitzako egitasmoa egiteko gauza izan daiteke, baina ez du bere burua aski, beste gizaki batzuen esku-hartzea behar du beti, bere beharrak asetzeko. Gizaki guztiok aurki gaitzke menpetasunean, kasu batzuetan denboraldi batez eta, beste batzuetan, iraunkortasunez. Gertakizun naturala da gure bizitzan eta gure organizazio sozialean gerta daitekeela pentsatu behar dugu. Gizakiengan hain bereizgarria den zaurgarritasuna eta interdependentzia bezalako ezaugarria bereziki areagotzen den egoera da. Gizaki zaurgarriak gara eta elkarrekiko menpekotasunean gaude: bestea ez da nire muga absolutua, bere beharrezko patu edo osagarria baizik, ni gizatiarra izan nadin anaitasunean.

5. Menpetasuna eta honi aurre egiteko arreta ez dira, egia esan, gai edo gertakari berriak. Beti egon izan dira menpetasun egoeran bizi izan diren pertsonak eta beti egon izan dira erantzun garrantzitsu eta baliotsuak menpetasuna gainditzeko, era askotako gizarte eragile eta instantzietatik. Familiak (eta batez ere emakumezkoak) izan dira historikoki menpetasun egoeran zeuden kideen euskarri. Eskuarlean ditugun datuen arabera, gure herrian, menpetasunean dauden lau lagunetik hiruk jasotzen dituzte zainketak senideren baten aldetik (bost kasutatik lautan, emakumezkoen eskutik).

6. Dena dela, historian zehar eta gero eta gehiago, familiekin batera, era bateko eta besteko eliz erakundeak, gizarte ekintzaileak eta erakunde publikoak menpetasunari eman beharreko erantzunean konprometitu izan dira. Gizarte sare eta eremu desberdinek menpetasun egoeran dauden pertsonekin dituzten betebeharrak aitortu dituzte. Gure inguruan, kalkulu desberdinen arabera, menpetasun egoera jasaten duten hiru lagunetik batek zainketak jasotzen ditu zerbitzu formaletatik.

7. Aldi berean, eta gero eta gehiago, honetaz jabetu gara eta adierazi ere egin dugu: menpetasun egoeran bizi diren pertsonen, herritar guztiek bezala, gizarte eskubideak dituztela. Menpetasunezko egoera jasaten duten pertsonen, gainera, herritartasun soziala kontzeptua egotzi zaie. Bereziki nabarmena izan da, zentzu horretan, osasun zerbitzuen, erretan berme sistemen eta gizarte zerbitzuen garapena.

8. Gure gizartean prestazio eta zerbitzu hauek gizarte babes edo ongizate sarearen itxura hartu izan dute, neurri handi batean, erantzukizun publikokoa. Sare hori lau zutabeen metaforarekin deskribatu izan da: hezkuntza sistema, osasun sistema, errenten bermearen sistema eta gizarte zerbitzuak, egituratzen hasi diren geroko une historikoagatik, ongizate sistemaren 'laugarren zutabe' izena jaso dutelarik.

9. Azken urteotan, gure gizartean menpetasunezko egoeren kopuru eta intentsitatea orokorrean nabarmen gehitu dela ikus dezakegu. Gure inguruan menpetasunezko egoeran egon daitezkeen pertsonen kopuruari buruzko kalkulu desberdinen arabera, egoera hori jasaten dutenak biztanleen %2 edo %4 inguru izan daitezke, eta menpetasunezko egoera jasaten duten gizon eta emakumeen heren edo laurdena 64 urteren azpitik dago. Menpetasunezko egoeran dauden pertsonen bi heren inguru emakumezkoak direla ere azpimarratu beharrekoa da. Azken urteetan gertatzen ari den menpetasunezko egoeren gehikuntza herritarren zahartzeari lotuta dago neurri batean eta, gehien bat, osasun arreta, ongizate sozial eta bizi kalitatearen inguruko aurrerapen kolektiboen ondorioa da.

10. Hala ere, une honetan eta gure inguruan, ez dirudi familiek (eta, batez ere emakumezkoek) menpetasunezko egoeran zeuden pertsonen eman izan dieten laguntza pertsonal maila eta motari eusteko aukerarik izango denik, besteak beste, familia eta gizarte egiturek aldaketa esanguratsuak izan dituztelako eta seme eta alaba gutxiagoko familiak daudelako, asko gehitu delako bi ezkontideek etxetik kanpo lan egiten duten familien kopurua eta familia nuklearraren eredua hedatu delako.

11. Beste alde batetik, aipatzen dihardugun gertakari hauek, esate baterako herritarren zahartzea edo familia ereduaren eraldaketa, azken hamarkadetan globalizazioa deitutakoaren testuinguruan indarrez azaldu izan diren beste ekonomia, politika eta gizarte gertakari batzuekin lotzen direla ulertu behar dugu. Gogoan izan ditzagun, bi eredu jartzearren, nola aldatu izan diren gure lan ibilbideak eta korrante migratzaile berriak. Gertakarien sare honek aukera berriak eta eskakizun berriak dakartza, neurri

handi batean gaurko gizarte baldintzekin zerikusi handirik ez duten baldintzetan eraturako ongizate edo babes sozialerako egitura formaletarako. Horregatik, sistema hauek gero eta eraginkorrago eta jasangarriago bihurtu nahi baditugu, guztiz beharrezkoak dira apustu berriak, ideia berriak eta garapen berriak.

12. Guzti horregatik, gaur eta hemen, menpetasuna politika sozialaren gai nagusienetakoa da dagoeneko. Zalantzarik gabe, gizon eta emakume bakoitzak bere buruaren osotasuna eta osoko giza garapena jadesteko duen gogo bizian eragin dezakeen gertakizuna da. Baina erronka kolektiboa ere bada, eta gizartean kezka sortzen du, gaiari aurre egiterakoan nola antolatu eta zein baliabidez hornitu aztertzen denean.

Menpetasunaren aurrean

Aurkeztu nahi ditugun ideia eta konpromisoak

13. Adostasun hauek eratzen laguntzeko asmoarekin, testuinguru honetan garrantzizkotzat ditugun ideia, konpromiso eta baieztapen batzuk aurkeztu nahi ditugu, esparru desberdinetan eraginen bat izan dezaketela eta, azken batean, bizi kalitatea hobetzeko eta menpetasun egoeran dauden pertsonen eskubideen gauzatzea bultzatzeko lagungarri izan daitezkeela uste dugulako. Gure asmoa ez da ekarpen berriak egitea, hobe eta lehentasunezko zatitatu ditugun ikuspuntu eta abordatze hariak azaldu eta bultzatzea baizik.

Menpetasunaren aurrean

Duintasuna

14. Gauza guztien gaintik, gizaki guztien giza duintasuna baieztatu eta azpimarratu nahi dugu. Pertsonok duintasuna dugu eta ez prezioa. Helburua gara eta ez bitartekoa bakarrik. Pertsona guztiok egiten dugu ekarpen baliotsuren bat, balioa eransten diogu gizarteari. Pertsona guztiok ditugu eskubide berak eta begirune eta errespetu bera merezi dugu. Menpetasun egoeran dauden pertsonak, beraz, autonomotzat hartzen den edozein pertsonak bezalako aparteko balio bera dute. Besteekin bizikide izanik, pertsona errepikaezinak eta bakarrak dira. Inork ezin du haien ordez bizi beren bizitza, ezta haien pentsamenduak pentsatu edo haien emozioak sentitu edo haien ametsak amestu ere. Beraiekin elkartzeak norberagatik –menpetasun egoeran egon ala ez– senti daitekeen harridura bera eragin dezake. Gizarte jokabideek, erabakiek, irudiek eta egiturek bat etorri behar dute gizakiaren eta gizartearen ikuskera osoko eta

integratzaile honekin eta honexek izan behar du gure bizikidetzaren sozialaren eta edozein bizimodu eredu onaren oinarria.

Menpetasunaren aurrean

Prebentzioa

15. Gizon eta emakume guztioi dagokigun auzia den menpetasunaren prebentzioaren garrantziaren mezua ozen jaulki nahi dugu, hasteko, bizi ohitura osasuntsuak izatera motibatuz. Menpetasuna, kasu askotan, prebenitu egin daiteke eta gero eta gehiago dakigu, gainera, tartean dauden eta menpetasuna prebenitzerakoan kontuan izan behar ditugun eragileei buruz. Menpetasunaren gaiari heldzerakoan, enfasi handia jarri behar dugu detekzio eta tratamendu goiztiarretan, horrela funtzionamenduaren inguruko defiziten (eta minusbaliotasun iraunkorren) nagusitzea saihestuz. Hala eta guztiz ere, jarduera prebentiboa, funtsezkoa bada ere osasun alderdiari dagokionez, ezin da esparru horretara mugatu eta, esate baterako, etxera sartzeari eta etxean bertan mugitzeari, garraioak, ekipamendu publikoak erabiltzeari eta lantokietara iristeari dagozkion neurriak hartu behar dira. Gizartearen sentsibilizazioa eta partehartzea eragiteko politika eta neurriak ere ezinbestekoak dira, eta horiek zahartze aktiboa, osasuntsua, gizartean emankorra den zahartzea bezalako biderapenetan inspiratu behar dute.

Menpetasunaren aurrean

Gizarteratzea

16. Hala ere, prebentzioaren arloan biziki ahalegindu arren, bistakoa da menpetasunezko egoerak izango direna. Errealitate horren aurrean, hauxe nabarmendu nahi dugu lehenengo eta behin: menpetasun egoera jasaten duten pertsonen, hasiera batean, zerbitzu, inguru eta aukera berdinak jabetzeko aukera izan behar dutela, gainerakoan antzera; hau gertatzen ez denean, beren menpetasunezko egoerari, kasu gehienetan, gizarte bazterketa gehitzen zaiolako, bien arteko eragin biderkatzailea gertatzen delarik. Guztiarekin ere, justifikatzen direnean, menpetasun egoeran dauden pertsonentzako edo biztanleriaren artean menpetasun egoeran dauden segmentu jakin batzuentzako berariazko zerbitzuak egongo dira. Berariazko zerbitzu hauek kontu handiz eratu behar dira, menpetasun egoera jasaten diharduen inor diskriminatu edo baztertu gabe.

Menpetasunaren aurrean

Esku-hartze egokia

17. Berariazkoak diren edo ez diren zerbitzuak ematerakoan eta, orokorrean, menpetasunaren inguruko esku-hartzean, ahalik eta gehien bultzatu behar da pertsonen autonomia, gaitasunen mantentze eta garapenari dagokienez nahiz beren bizitzaren kontrolik handienari dagokionez. Orekaz, bidezko preskripzio teknikoarekin, prestazio eta zerbitzu desberdinen artean hautatzeko aukera eman behar da, ahal den neurrian, eta baita prestazio eta zerbitzu horiek jarraitasun eta hurbiltasun irizpideekin uztartzeko edo artikulatzekoa ere. Menpetasunezko egoeran dauden pertsonen ingururik ireki eta integratzaileenak eskaini behar zaizkie, ahalik eta neurririk handienean beren familia eta elkarte inguruan parte hartzeko aukera izango dutelarik. Menpetasunezko egoera jasaten duten pertsonetako esku-hartzean osoko abordatzea bultzatu behar dugu, alderdi guztiak –fisikoa, psikologikoa, juridikoa, biderapenezkoa, soziala eta espirituala- aintzat hartuz.

Menpetasunaren aurrean

Familia, elkarte eta gizarte konpromisoa

18. Gizakiok familia, elkarte eta gizarte sareen barruan gaude eta hor egunero aurki ditzakegu menpetasun egoeran dauden pertsonak eta, horregatik, menpetasuna interpelatzaile da denontzat, neurri handiago edo txikiagoan, hurko ditugun hariei zor diegun konpromisozko lehenengo maila honi erantzuteko bada ere. Dena dela, une historiko honetan, menpetasun egoera jasaten duten pertsonetako familia erantzukizun hori honelako esparruan gauzatzen da: bidezko familia eta bizikidetasun eredu anitzak bultzatuz eta menpetasun egoeran dauden pertsonen eta hauen familien aldeko laguntza formala gehitu beharra aldarrikatuz. Kontuak kontu, menpetasunari lotutako gizarte konpromisoari buruz hitz egiterakoan, elkartasun nahitaez asimetrikoa eragiteko deia luzatzen dugu, hau da, pertsonarik ahulenak edo behartsuenak gogokoen dituen elkartasuna.

Menpetasunaren aurrean

Profesionalen konpromisoa

19. Aparteko paragrafoa merezi dute menpetasunezko egoeran dauden pertsonen zuzenean arreta ematen dienak, haien bizi kalitatearen sustatzaile eta bermatzaile diren heinean. Langile hauek konpromiso funtsean etiko eta morala dute eta izan behar

dute menpetasunezko egoeran dagoen pertsonaren bizitzarako egitasmo pertsonalaren hedatzeari dagokionez. Betebehar etiko hori, dena dela, legez edo kontratuz eskain daitekeenetik harago doa. Beren zainketa eta arreten jasotzaile diren pertsonen bizitza pribatua –eta intimitatean- sartzeak (edo esku-hartzeak) horixe eskatzen du, bestela jarduera horrek hartzaile horien duintasuna erasoko luke eta. Era berean, jarrera irekia izan behar dute eta heziketa etengabe eta iraunkorrean konprometitu, menpetasun prozesuak dinamiko eta aldakorrek direlako. Guzti horretarako, jakina, nahitaezkoa da beren lan-bizitzaren kalitatea etengabe berritzea: beren lan baldintzek aukera nahiko erakargarriak eskaini behar dituzte aberastasun eta garapen profesionalerako bultzada izan daitezen, eta homologagarriak izan behar dute jarduera ekonomikoko beste sektore batzuetan indarrean dauden baldintzekin. Horren arabera, desberdintzeak beren ekarpen profesionalen balorazio zuzenetik eratorritakoak baino ez dira izango eta inoiz ez baldintza pertsonal, egoera edo jatorritik arrazoitu nahi izaten direnetatik.

Menpetasunaren aurrean

Kalitate kudeaketa

20. Menpetasunezko egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzen dieten erakundeetan gestio erantzukizunak dituzten pertsonen ardura da erakunde hauek beren erabiltzaileengan oinarritutako eta beraiei zuzendutako antolakuntza egiturak eta zuzendaritza sistemak izatea. Esku-hartzeko egitarau eta prozesu hauek gauzatzeko zerbitzuen kudeatzaileak beren eginbeharrean erabateko profesionaltasunez jokatu behar duten, eraginkortasunik handiena jada josten saiatzen diren, beren ekarpenen kalitatearen etengabeko hobekuntzarako prest dauden eta, kasu eta egoera guztietan, jokabide etikoak bermatzen dituzten printzipioen jabe diren profesionalak izango dira. Beharrezko prozedura eta kontrolak ezarri behar dituzte beren kudeaketaren emaitzen eta aurkeztutako helburuen betetze mailaren ebaluaketarako.

Menpetasunaren aurrean

Justizia eta zuzentasuna

21. Menpetasunaren inguruan esku hartzen duten erakundeetako arduradunen esku dago, dena dela, baliabideen esleipena. Justizia eta zuzentasuna izango dira horretarako irizpideak, beharrezko larritasunaren arabera arretaren eta behar horri emandako erantzunean espero daitekeen eraginkortasuna aintzat hartzearen arteko oreka labaina bilatuz. Baliabideen banaketa zuzenaren bidez, erabiltzaile guztiek,

egoera berdinean daudenean, gizarte prestazio berdinak jadetsiko dituzte. Kontu handia izan behar da, dagozkien baliabideei dagozkienez, menpetasun egoeran dauden pertsonen arteko diskriminazio negatiborik gerta ez dadin.

Menpetasunaren aurrean

Erantzukizun publikoa

22. Menpetasunak duen besteko garrantzi eta tamainadun gertakariak botere publikoen erantzukizun publikoa, erantzukizun soziala eskatzen du, zalantzarik gabe. Erantzukizun publiko hori, alde batetik, eskubideen gauzatzeari lotuta dago, batez ere, menpetasunezko egoeran dauden pertsonen gertatzen zaien bezala, eskubide horiek defendatzeko mugak dituzten gizon eta emakumeen gauzatzeari. Menpetasunezko egoeran dauden pertsona horiek, gainerako guztien antzera, eskubide batzuk badituzte eta, nabarmena denez, mugak badituzte (kasu batzuetan oso larriak) eskubide horiek gauzatze eta defendatzeko, norbaitek hartu behar du horiek babesteko erantzukizuna eta, azken batean eta zalantzarik gabe, botere publikoak dira ardura hori beren gain hartu behar dutenak. Beste alde batetik, eta bereziki, konpromiso publikoa honetan gauzatzen da eta gauzatuko da: gizarte ongizaterako sistema publiko eta unibertsalen sarearen eraikuntzaren bidetik jarraitzeko jarduera ekintzailea, errenta, osasun eta gizarte zerbitzuen bermea bezalako esparruetan. Erantzukizun publikoa zerbitzuen sare garrantzitsuen diseinu, ordenazio, plangintza, zabaltze, berme, finantzaketa, kontrol eta ebaluaketan.

Menpetasunaren aurrean

Ongizaterako sistema publikoaren eraketa

23. Dena dela, ongizaterako sistema publikoaren eraketan aurrera egiteko egitasmoak betebeharrak argia jartzen digu tartean gauden ekintzaile guztioi: gure indar guztiak, bizitasun eta azkartasunez, helburu horretara zuzentzea. Herritarrek arlo publikoa estimatzea eta errespetatzea ekarriko duen pedagogia politiko eta soziala bultzatu behar dugu. Sektore publikoaren funtzionamendurako formula eta dinamika berriak ere bilatu behar ditugu, egoera berrietara moldatzeko malgutasun eta gaitasun handiagoa izan dezaten. Erakundeen arteko lankidetzak eta sektore publikoaren eta gizarte zibilaren arteko sinergiak sendotu behar dira. Era berean, zerga eta aurrekontu politika arloko lehentasun eta mekanismoei buruzko eztabaida bizitu behar da, Gizarte Segurantzaren eta, orokorrean, gizarte babesaren sistema publikoaren jasangarritasuna bermatzeko. Erantzukizun publikoaren zeregin eta funtzionaltasuna

gizarte ongizatearen esparruan etengabe zehaztu eta sendotzen laguntzean datza, azken batean.

Menpetasunaren aurrean

Gizarte zerbitzuen alde egitea

24. Testuinguru honetan, errenta berme eta osasun arretarako sistemak sendotzen, hobetzen eta garatzen jarraitu behar badugu ere, gure ustez, gaur eta hemen, aparteko arreta eskaini behar diegu gizarte zerbitzuei, horiek eratzeko egin izan dugun ahaleginarekin jarraituz eta ahalegin hori areagotuz. Gizarte zerbitzuen aldeko politika, erakunde arteko eta gizarte hitzarmen handi bat eraikitzen saiatu behar dugu, ondorengo hauek oinarritzat dituen esparru legal eta instituzionala eratzeko: pertsonak eska ditzaketen eskubide subjektiboak, prestazio eta zerbitzuetarako sail argi eta jasangarriak ezartzea, berrabiarazteko minimo batzuekin eta gizarte zerbitzuak gero eta eraginkortasun handiagoz unibertsal bihurtzea. Gizarte zerbitzuen sendotzea eta berriz konfiguratzea da, beste alde batetik, ezinbesteko baldintzetako bat, menpetasun egoeran dauden pertsonen arretarako hain beharrezkoa den gizarte-osasuna koordinazioa hobetzeko.

Menpetasunaren aurrean

Laguntasuna familiako zaintzaileei

25. Gizarte zerbitzuek, gainera, eginkizun esanguratsua dute pertsona, familia eta elkarteei moldaera autonomoarekin eta gizarteratzearekin lotutako alderdietan hain zuzen ere, eta eginkizun hori bereziki garrantzitsua da menpetasun egoeran dauden pertsonen dagokienez. Funtsezkoa da elkarte eta osoko ikuspuntutik egitea, menpetasun egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten senideei edo, dagokienean, elkarteko kideei eman beharreko laguntza bereziki nabarmenduz eta bizitza pertsonala eta familia eta lan bizitzaren kontziliazioa eta gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna eragiteko esku-hartzearen bidez.

Menpetasunaren aurrean

Merkatua

26. Gure gizartean, merkatuak zeresan handia du beti hainbat behar asetzeko. Begirada batzuek bere bizitasun baliotsua eta gizarte eskariei erantzuteko gaitasun handia –askotan beste inguru batzuetan baino kalitate eta eraginkortasun handiagoz-gogorarazten dizkigute. Beste ikuspuntu batzuek zera dakarkigute gogora: merkatuak,

ekonomia errentagarritasuna bilatuz, ez diela gizarte beharriaz eskari fidagarriari beste arreta eskaintzen eta, horren eraginez, gizarteak, botere publikoak eta merkaturak jarduten duten ekintzaileek beraiek menpetasunezko egoeran dauden pertsonen behar, eskari eta interesek merezi duten aparteko babesaz jabetu behar dutela.

Menpetasunaren aurrean

Hirugarren sektorearen konpromisoa

27. Menpetasunezko egoera jasaten duten pertsonen aldeko lanean ibilbide luze eta emankordun gizarte zibil antolatua, altruismo solidarioaren, boluntarioen, mugimendu sozial, konfesional eta konfesionalen eginkizuna ere aipatu nahi dugu. Erakunde hauek, beren izatasunari eta beren forma juridikoari lotuta dagoen eginkizun sozialari leial agertzen diren neurrian, elkartearen zerbitzura jarri izan duten eta jarriko duten ondare material, ezaupideko, intelektual eta moral garrantzitsuaren eramaileak dira. Gure iritziz, gaurko egoerak eszenatoki berrian jartzen du gizarte ekimeneko erakunde asko eta asko eta, ondorioz, erakundeok beren eginkizuna berriz pentsatzera eta beren jarrera birplanteatzera daramatza, nola kokatuko diren zehaztuz: erantzukizun publikorako zerbitzuen gestore bezala, elkarri laguntzeko, salatzeko, sensibilizatzeko edo errebindikaziorako erakunde bezala; ekintza pribatuen egile bezala edo honelako lan-ildoetako batzuen uztartzaile eta orekatzaile bezala. Era berean, gorputz sozialak, botere publikoak eta hirugarren sektoreko organismoek irabazi-asmorik gabeko erakundeak babestu behar dituzte, beren autonomia zainduz, beren nortasun ezaugarriari eutsi diezaieten eta beren gizarte egiteko garrantzitsua bete dezaten. Horrezaz gain, ekintzaile hauek honelako erakundeen benetakotasun altruista bermatuko duten irizpideak ezarri eta baldintzak exijitu behar dituzte, intrusismoa, pikarokeria eta iruzurrak saihesteko.

Menpetasunaren aurrean

Herritarren partaidetza

28. Partehartzea da, zalantzarik gabe, gako erabakigarrienetakoa menpetasunari erantzuterakoan. Menpetasun egoeran dauden pertsonen beraien partehartzea, beren familia, ordezkatzeko erakundeena eta tartean dauden ekintzaile gainerako ekintzaileena. Esku-hartzea gertatzen den maila guztietan garatzen den partehartzea: arretarako bakarkako egitasmoa egitetik, politika publikoak diseinatzeraino. Partehartzeak soluzioak hobetzen ditu eta sinesgarritasuna, konfiantza eta legitimazioa

eragiten ditu. Gizarte partehartzeak herritar aktiboak sortzen ditu, ahotsa ematen die entzunarazteko zailtasun gehien dutenei eta adi mantentzen gaitu gure erantzunen etengabeko hobekuntza bilatzeko. Partehartzea ikaskuntza eta ariketa da, bidea eta helburua da.

Menpetasunaren aurrean

Baterako erantzukizunerako deia

29. Badakigu munduan zehar gauza asko aldatu behar dena, menpetasun egoeran eta beste egoera batzuetan dauden pertsonak diskriminazio eta bazterketatik atera daitezten, beren duintasuna aitor diezaieten eta beren eskubideak gauza ditzaten. Dena dela, gaur eta hemen une erabakigarria bizi dugu menpetasunari eman beharreko erantzunari dagokionez. Une honetan, menpetasuna bezalako gertakariak, deliberamendu publikorako dinamiketan, herritarren partehartzean eta konpromiso solidarioan jokoan jar ditzakegun indar guztiak aktibatzea merezi du. Horretarako deia egiten diogu geure buruari eta beste pertsona, entitate eta erakunde sozialei.

30. Horregatik, dei egiten diegu agiri hau irakurtzen duten guztiei, gehiago ahalegindu daitezten menpetasun egoeran dauden pertsonen aldeko eta, orokorrean, gizarte gizatiarrago eta zuzenagoaren aldeko politika, estrategia eta jarduerak eztabaida ditzaten eta horietan parte har dezaten eta haien aldeko sinergiak bultzatzen. Ekintzarako ordua da, menpetasunari emandako erantzuna delako eta izango delako, seguruenez, gure gizartearen kalitate moralaren adierazle esanguratsua.

Menpetasunaren aurrean

Mintegian parte hartu eta agiria sinatu dutenak

Aitor Pérez Artetxe, Aitor Urrutia, Alberto Esteban, Andoni Rekagorri, Begoña Iriarte, Begoña Ortuondo, Bienvenido Presilla, Carlos Trevilla, Carmen Vicioso, Ernesto Mendiola, Fernando Consuegra, Fernando Fantova, Fernando Huarte, Imanol Zuloaga, Iñigo Pombo, Izaskun Saez de Lafuente, Javier Vitoria, Joaquín Perea, José Javier Miguel, Juan María Aburto, Mabel Martínez, María Jesús Goikoetxea, María Luisa Mendizábal, Marta Barco, Mikel Ruiz, Pablo Angulo, Pablo González, Pedro Fernández de Larrinoa, Pedro Fernández García, Sabin Ipiña, Toño Garaizar, Victoriano Beramendi.

Bilbao, 2006ko maiatza